


# Merkatuaren Segmentazioa:

Merkatuaren segmentazioari dagokionez gure produktua zein bezerori zuzenduko diogun aukeratzeko hainbat aukera hartu ditugu kontuan. Horien artean garrantzitsuenak gure aplikazioa zeini gerta dakiokeen erabilgarria izan da.

Gure bezeroak dira gure proiektuko alderdi garrantzitsuenetako bat eta horren ondorioz lan asko egin dugu merkatua segmentatzeko atalean. Gure bezeroek dituzten beharrak asetzeko asmoz diseinatu dugu gure aplikazioa eta horren ondorioz segmentatu dugu merkatua gure jomuga izango diren bezeroak zein diren ongi jakiteko.



Hau guztia kontutan hartuta gure merkatua bi atal nagusitan segmentatu dugu. Alde batetik jada ikasle izan diren eta orain irakasle izan nahi duten taldea dago. Beste alde batetik ikasketetan arazoak dituzten edozein adinetako ikasleak daude, eta havei aurre egiteko laguntza baten premia dutenak.



Aurretik aipatutakoez gain, gure aplikazioaren beste segmentu bat aplikazioan parte hartuko duten ikasle eta irakasleen gurasoak izango lirateke. Azken finean, havek ere gure aplikazioan atal garrantzitsu bat osatzen dute, izan ere, havek izango dira haien semeak laguntza behar izanez gero kuota ordainduko dietenak irakasle gisa jardungo duten ikasleei eta beste alde batetik irakasle gisa jardungo duten ikasleen dirua kudeatuko dutenak.

Segmentatutako talde havek modu erraza izango dute beren beharrak asetzeko gure aplikazioaren bidez, izan ere, "Teaching"-en bertan harremanetan jartzeko aukera emango diegu eta bertan haien zerbitzuak elkarbanatzeko aukera izango dute, haien beharrak asetzeko helburuarekin.

Aurrerago gure aplikazioak beste bezero jakin batzuen beharrak asetzen dituela ikusten badugu, segmentazio talde berri bat sortuko genuke gure aplikazioak talde honen beharrak ere asetzeko.